

# 2018

## URTEKO TXOSTENA



Juan San Martin Liburutegia



## Aurkibidea

Sarrera.....	3
Zifrak .....	5
Bisitak / Erabiltzaileak.....	5
Bazkide txartela duten erabiltzaileak.....	5
Asistentziak ordutegi berezietan .....	5
Katalogazioa eta funtsa.....	5
Bertako bilduma .....	5
Liburuklik.....	6
Maileguak .....	6
Internet zerbitzuaren erabilera .....	6
Web gunea, OPAC kontsultak eta sare sozialak .....	6
OPAC (online katalogoa) .....	7
Sare sozialak.....	7
Liburutegiak antolatutako jardueretako parte-hartzea .....	7
Erabiltzaileak.....	7
Liburutegira etortzen direnak .....	7
Bazkideak .....	7
Bazkideak adinaren arabera .....	8
Irakurle aktiboak.....	10
Funtsa bibliografikoa.....	10
Jatorriaren araberako sarrerak .....	10
Funtsa, euskarri-materialaren arabera.....	11
Mailegua .....	11
Helduen sailean egindako maileguak.....	12
Umeen sailean egindako maileguak.....	17
Mailegua hizkuntzaren arabera.....	22
Mailegua sexuaren eta adinaren arabera .....	24
Erakundeei egindako mailegua .....	25
eLiburutegia zerbitzua .....	26
Automailegua.....	27

Liburutegien arteko mailegua.....	28
Datu ekonomikoak.....	30
Jasotako dirulaguntzak .....	31
Irakurketa bultzatzeko jarduerak.....	32
Bularretik Mintzora egitasmoa .....	32
Li (buru-hausgarriak).....	34
Liburua, kulturarako sarbidea.....	35
Zapatuko ipuina .....	36
“Liburu artean” liburutegi tailerra .....	37
“Itsaspeko bihotzak” areto literarioa.....	38
Umeen irakurketa klubak.....	40
Azalerako ipuinak.....	40
Liburuen poltsa .....	41
Paperezko hegoak.....	42
Haur eta Gazte liburuaren nazioarteko eguna .....	44
Umeentzako jolasak Haur liburutegian .....	45
Helduen irakurketa kluba.....	46
Euskarazko irakurketa kluba: Idazlearekin harixa emoten.....	47
Liburuaren nazioarteko eguna.....	49
Bibliografia fondoaren erakusketa interesguneetan.....	50
Hitzaldiak eta liburu aurkezpenak .....	52
Erabiltzaileen formakuntzarako tailerrak .....	53
Prestakuntza ikastaroak.....	55
Proiektuak.....	57
Andretxeko liburutegia .....	57
Ondare-funtsa katalogatu.....	58
Zerbitzuen karta .....	59
Ikastetxeekin harreman estuagoa bilatu .....	59

## Sarrera

Liburutegiko **erabileraren zertzelada batzuk** doaz sarrera honetan. 2018an **112.906 bisita** izan ditugu, hau da, **368 pertsona egunean (+ % 3,36)**.

Beste datu interesgarri bat da irakurzaletasuna bultzatzeko **antolatzen diren hainbat jardueratan, 2.439 pertsonak hartu dutela parte** urtean zehar (+ % 11,27); pertsona hauek ez dira bisitarien kopuruan kontabilizatzen, Liburutegiko esparrutik kanpo egiten diren jarduerak baitira.

Jarduera horietako batzuk hauek dira: “Zapatuko ipuina”; irakurketa-klubak, umeentzat eta helduentzat; hitzaldiak eta liburu-aurkezpenak; irakurketa saritzeko egiten diren zozketak; besteak beste.

Bestalde, **liburutegian inskribatutako erabiltzaileak 13.250 izatera iritsi ziren**, hau da, Eibarko **biztanleriaren % 48**. Liburutegiko komunitatea **565 bazkideetan igo da** 2018an; batez ere umeak izan dira, txikitatik beraien familiek lagunduta liburuekin kontaktuan egotera Liburutegira etortzea gustuko dutenak.

**Irakurle aktiboak** ere igo egin dira: **guztira 3.682 izan dira**. Hauek karneta Eibarren egin eta 2018. urtean mailegu-zerbitzua gutxienez behin erabili duten bazkideak dira.

**81.505 dokumentuk** osatzen dute funtsa, hau da, **2,95 dokumentu biztanleko**. Horien artean ez daude liburuak bakarrik, baizik eta DVDak, diskoak eta aldizkariak ere bai.

Katalogoaren interesa ere nabaria izan da. **Kontsultak 9.783 izan dira** eta webgunean ere islatzen da interes handiena duena katalogoa dela. Hain zuzen ere, egindako kontsulten % 35 orrialde hauetara izan da.

2018an **41.043** mailegu egin ziren, egunean 134, 2017an baino **1.095 mailegu gehiago**. Gure helburua mailegua mantentzea da, joera orokorra jaisteo baita. Helduen liburutegian pixka bat jaitsi bada ere, **Umeen liburutegian 1.314 dokumentu gehiago** mailegatu dira 2018an.

Igoera horrek hiru arrazoi ditu gure ustetan:

1. **Bularretik Mintzora** programak erabiltzaile berriak ekarri ditu liburutegira
2. **Umeentzako** antolatu diren **irakurketa klubek** ere eragina izan dute, horietan parte hartzen dutenak gehiago etortzen direlako orain liburutegira. Gainera, ikasturte honetan (2018-2019) **hiru talde gehiago sortu dira** txikienen irakurketa klubetan, eskaera eskaintza baino handiago zelako eta **esfortzu bat egin da familia gehiago hartu ahal izateko**.
3. **Ikastetxeei** 2017an baino **liburu-sorta gehiago** mailegatu zaizkie: 2018an, 675 liburu; eta 2017an, 316. Ikasturte honetan **ikastetxeekin dugun harremana sendotzea izan dugu helburu**. 2018ko urte bukaeran bilerak egin genituen hainbat ikastetxetako zuzendaritza ekipoarekin. Bilera hauetan dossier bat banatu genuen eta bertan zeintzuk ziren gure jarduerak eta eskaini ahal genizkien zerbitzuak azaldu genituen. Orduz geroztik beraiek egiten zuten udal liburutegiaren erabilera handitu egin da.

**Liburutegien arteko mailegu zerbitzuak ere gora egin du.** Zerbitzu honen bidez, gure katalogoan ez dauden liburuak sarean dauden beste liburutegi batzuetatik ekartzen dizkiogu interesatuari eta, alderantziz, beste liburutegi batzuetara ere bidaiatzen dute gure liburuak, hango bazkideek eskatuta. Beste liburutegi batzuei lagatako liburuak 1.668 izan dira eta 1.275 guk eskatu ditugunak. Eibarko irakurle taldeentzat ere 878 liburu ekarri izan dira.

**Mailegu digitalaren** atalean, aldiz, **Eibarko 466 erabiltzailek 953 liburu** deskargatu zituzten **eLiburutegiatik**. Hori horrela, Eibar da zerbitzu honen bitartez deskarga gehien egiten dituzten hirien artean hamargarrena.

## Zifrak

### Bisitak / Erabiltzaileak

**112.906** bisita, 368 pertsona egunean (+ % 3,36).

### Bazkide txartela duten erabiltzaileak

**13.250** izan ziren (biztanleriaren<sup>1</sup> % **47,92**); 2017an baino 559 gehiago

Helduak	Umeak	Erakundeak	Liburutegiak
10.755	2.406	76	12

2018an alta emandako bazkideak: **565**

Helduak	Umeak	Erakundeak	Liburutegiak
180	384	0	1

### Asistentziak ordutegi berezietan

**2.232 pertsonak** erabili zuten Liburutegia eguerdian, azterketa garaian irekitzen dugunean.

### Katalogazioa eta funtsa

2018ko abenduaren 31ko funtsa guztira: **81.505** (% 2,95 gehiago)

**Altak 2018an: 3.087**

Dokumentuak biztanleko Eibarren: **2,95**

### Bajak

2018an galdutako dokumentuak: **16**

Xahututako dokumentuak: **740**. Horietatik aparte, katalogatuta ez dauden liburuak ere xahutzen dira, ez direlako egokiak ikusten bildumarako: zaharkituak edo hondatuta daudelako, batez ere.

### Bertako bilduma

Saiatzen gara Eibarri buruz topatzen dugun guztia eskuratzen. Momentu honetan **3.066** ale ditugu gure katalogoan, titulu batzuetatik ale bat baino gehiago badugu ere.

<sup>1</sup> Biztanleria udal-errodan: 27.647 (2018/12/31)

## Liburuklik

**85 monografia** digitalizatuta ditugu Liburukliken<sup>2</sup>, edozeinek eta Interneten bidez kontsultatu eta irakurtzeko.

## Maileguak

2018an **41.043 (+ % 2,74)** mailegu egin ziren, 134 egunean. Horrela banatu daitezke:

Helduen liburutegian: 22.803

Umeen liburutegian: 18.240

Euskaraz: 10.950

Liburu digitalak: 953<sup>3</sup>

## Internet zerbitzuaren erabilera

**10.272** saio egin ziren erabiltzaileentzat ditugun ordenagailuetan, **1.670** umeen liburutegian eta **8.602** helduen liburutegian.

## Web gunea, OPAC kontsultak eta sare sozialak

### Web gunea

**Gaztelarazko** orrialdeak <http://www.eibar.eus/es/cultura/biblioteca> bisita hauek izan ditu:

**16.948** bisita (Kultura atalaren % 8,32)

Gehien ikusitako atalak: katalogoa (kontsulten % 36), ordutegia (% 15), informazio orokorra (% 8), online zerbitzuak (% 7), zerbitzuak eta erabilerak (% 6), argitalpenak (% 2) eta baliabideak Interneten (% 2)

**Euskarazko** ataleko <http://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia> datuak hauek dira:

**7.533** bisita (Kultura atalaren % 21)

Gehien ikusitako atalak: katalogoa (kontsulten % 34), ordutegia (% 7), informazio orokorra (% 7), online zerbitzuak (% 5), zerbitzuak eta erabilerak (% 5), argitalpenak (% 6) eta mailegua (% 2)

Orokorrean hartuta, **bisitarien % 69 inguru sartzen da Liburutegiko edukietara gaztelaniaz eta % 31 inguru euskaraz.**

<sup>2</sup> Liburuklik: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/11616?locale=eu>

<sup>3</sup> Datu hau ez dago kontabilizatuta mailegu kopuru orokorrean

OPAC (online katalogoa)

**Bilaketak OPACen (Katalogoan): 9.783**

Sare sozialak

Facebook (452), Twitter (742) eta Instagram-eko (129) **jarraitzaileak** batzen baditugu, **1.323** ditugu (+ % **10,43**).

Liburutegiak antolatutako jardueretako parte-hartzea


Antolatu diren jardueretan hainbat taldek jardun dute, ikasturtearen hasieran izena eman zutenetik: irakurketa-klubak, eskoletako bisitak... Horrez gain, badaude sarrera irekia duten ekitaldiak, hain zuzen ere ipuin-kontakteta saioak, liburu-aurrekezpenak eta tailerren bat.

**Jarduera horietan urtean zehar 2.439 pertsonak hartu dute parte (+ % 11,27).**

## Erabiltzaileak

Liburutegira etortzen direnak

Pasa den urtean **112.906 pertsona** pasatu ziren Liburutegitik. Horietatik **43.370 goizez** eta **66.629 arratsaldez**.




Bisitari kopurua igo egin da aurreko urtearekin konparatuta.


Bazkideak

2018an **565 bazkide berri** izan genituen; guztira **13.250** dira.





2017ko iguera Bularretik Mintzora egitasmoak eragindakoa izan zen.




Kontuan hartu beharra dago Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko partaideak garez eta sarerako txartel bakarra dagoenez, gure bazkideei ez ezik, arreta ematen diegula beste herri batzuetako bazkide diren hainbat erabiltzaileri ere.

#### Bazkideak adinaren arabera


2018an, karneta eskatu zuten pertsonen % 67k 14 urte baino gutxiago zeukaten. Eta 41 eta 65 urte bitartean zeuden eskatzaileen % 13. % 1ek, aldiz, 66 urte baino gehiago zeukan. Umeen

artean bazkide kopurua handitzearen arrazoia **Bularretik Mintzora** programa izan da, zenbait eskolatako umeak etorri direlako bazkide egitera.



Baina datu orokorrak hartuta, bazkideen % **32 41 eta 65 urte bitartean daude. Eta % 24 25-40 urte bitartean.**

Ikasleek asko erabiltzen dute Liburutegia irakurketa gela moduan, baina horietako asko ez dira bazkideak. Eta Eibarren jubilatu asko egonda ere, normalean ez dira Liburutegiko bazkideak. Kontuan izan behar da, halaber, hemeroteka zerbitzua erabiltzeko ez dela liburutegiko bazkidea izan behar.



## Irakurle aktiboak

Hauek mailegu-zerbitzuaren erabiltzaileak dira.

Honako hauek jotzen ditugu irakurle aktibotzat: karneta Eibarren egin eta 2018. urtean mailegu-zerbitzua gutxienez behin erabili duten bazkideak.

**Guztira 3.682** izan dira, eta adinaren eta irakurle motaren arabera sailkatzen baditugu, hauek dira emaitzak:

	Helduak	Haurrak	Erakundeak	Beste liburutegi batzuk
<b>2018</b>	2.078	1.567	29	8

## Funtsa bibliografikoa

Eibarko liburutegiko funtsari **3.087 ale gehitu** zitzaizkion 2018. urtean. Gehienak ale berriak izan ziren, baina badaude horien artean ondare bibliografikokoak, atzerabegirako katalogaziokoak edo dohaintzen bidez jasotakoak.

**Jadanik 81.505** aleen zifrara ailegatu gara eta gure ekipamenduek ezin dute askoz gehiago hartu. Hori dela eta, orain arte erretiratu ditugun baino liburu gehiago xahutu beharko ditugu. Adibidez, 2018an **740 ale xahutu** dira.

Kopuru horretan ez dugu sartu **eLiburutegiko funtsa**, hau da, mailegu digitalerako sare osoak erabiltzen dituenak: **guztira 16.254 liburu digital, 80 audioliburu eta 1.765 pelikula, azken hau 2018an nobedadea.**


## Jatorriaren araberako sarrerak

2018ko taula ikusita, partikularren dohaintzen kopurua garrantzitsua izan da. Kasu honetan Eibarri buruzko artikuluak jasotzen zuten aldizkari bildumak izan dira batez ere.

Ondare bibliografikoa<sup>4</sup> ere katalogatzen joan gara eta hori da “Jatorri ezezaguna” atalaren handitzearen arrazoia: askotan ez dugu jakiten zein izan zen liburu horien jatorria.


---

<sup>4</sup> 1958an edo lehenago argitaratutako funtsa bibliografikoa



## Funtsa, euskarri-materialaren arabera


Monografiak dira oraindik ere euskarri ugarienak Eibarko Liburutegian. Horien atzetik honako beste hauek daude: ikus-entzunezkoak, entzunezkoak, elektronikoak, aldizkako argitalpenak eta material bereziak.



## Mailegua

2018an **41.043** mailegu egin ziren, egunean 134, 2017an baino 1.095 mailegu gehiago. Gure helburua mailegua mantentzea da, joera orokorra jaistea baita.

Mailegu kopuru honi liburutegien arteko maileguen bidez kudeatzen dena gehitu beharko litzaioke. Azken finean, gure erabiltzaileek beste liburutegi batzuetatik eskatutako liburuak **1.275** izan dira.



Helduen sailean egindako maileguak

2018an gehien mailegatu diren nobelak irudian agertzen direnak dira.



*Bihotz handiegia*  
(Eider Rodríguez)  
Susa, 2017



*Jenisjoplin*  
(Uxue Alberdi)  
Susa, 2017




*Azala erre*  
(Danele Sarriugarte)  
Elkar, 2018



*Patria*  
(Fernando Aramburu)  
Tusquets, 2016




*El silencio de la ciudad blanca*  
(Eva Gª Sáenz de Urturi)  
Planeta, 2016




*El último regalo de Paulina Hoffmann*  
(Carmen Romero Dorr)  
Planeta, 2018

Eta gehien mailegatu diren DVDak honako hauek:



*Narcos. Primera temporada*




*Castle. Cuarta temporada completa*



*Juego de tronos. Séptima temporada completa*

Maileguaren bilakaera honako hau izan da 2010. urtetik gaur egunera:




Helduen liburutegian behera egin du maileguak euskarri guztietan, liburuak eta aldizkariak izan ezik. Grafiko hau ikusita, jendeak digitalean gehiago irakurtzen duela ondorioztatzen dugu.

Helduen liburutegian 2017an baino **653 dokumentu gutxiago** mailegatu dira. 2017ko maileguen % 69 liburu eta aldizkariena izan da, eta % 31 beste euskarrietan. Beste


euskarrietako maileguen % 88 bideoena izan da. Beherakada nabarmenena beste euskarrietan izan da, **liburu mailegua 230 liburutu igo da eta**.



Mailegu tradizionalean beheranzko joera begi-bistakoa da. **Interneteko kontsultak eta Irakurketa digitala asko igarri da liburutegietan**, eta ikusten ari dira bere maileguen kopurua nola ari den jaisten. Honekin batera, pelikulen eta telesailen harpidetza-plataformen booma bizitzen ari gara (Netflix, HBO...) eta baita musika digitala entzutea ahalbidetzen duten Spotify-ren antzerako harpidetza-plataformena ere.

## Mailegua euskarrien arabera










Umeen sailean egindako maileguak


2018an gehien mailegatu diren liburuak, euskaraz eta gazteleraz:




*Grufaloo*  
(Julia Donaldson)  
Bruño, 2016




*Kaka putza*  
(Stephanie Blake)  
Denonartean, 2015



*Bost minutuko lasaialdia*  
(Jill Murphy)  
Pamiela, 2016



*Doraemon 06*  
(Fujiko F. Fujio)  
Planeta Cómico, 2017



*Volando voy*  
(Jeff Kinney)  
RBA, 2017




*El misterio del ojo de halcón*  
(Roberto Santiago)  
SM, 2014


Umeen liburutegian **1.314 dokumentu gehiago** mailegatu dira 2018an. Guztira 16.311 dokumentu mailegatu dira eta horietatik, **12.600 (% 77) liburu eta aldizkarietarik** dagokie. Liburuaren erabilaren gorakadak (**1.515 liburu gehiago** 2018an) hiru arrazoi ditu gure ustetan:

1. **Bularretik Mintzora** programak erabiltzaile berriak ekarri ditu liburutegira
2. **Umeentzako** antolatu diren **irakurketa klubek** ere eragina izan dute, horietan parte hartzen dutenak gehiago etortzen direlako orain liburutegira.
3. **Ikastetxeei** 2017an baino **liburu-sorta gehiago** mailegatu zaizkie: 2018an, 675 liburu; eta 2017an, 316.


Gehien mailegatu diren DVDak honako hauek izan dira:



Tipi-tapa, Korrika!




Amalur





Ongietorri Pupu eta Lore



Maileguaren bilakaera honako hau izan da 2010. urtetik gaur egunera:




## Mailegua euskarrien arabera

Umeen liburutegian **euskarrien arabera** izan ditugun maileguak honako hauek izan dira:









Liburuen igoera nabarmena da eta maileguan hartzeko bigarren euskarri gustukoena bideoa izaten dela ikus dezakegu.

## Mailegua hizkuntzaren arabera



Helduen Liburutegia	Euskara	Gaztelania	Beste hizkuntza batzuk
2010	2.214	25.199	2.638
2011	2.349	23.763	3.039
2012	1.846	23.287	3.299
2013	1.701	20.872	3.795
2014	1.539	18.938	3.385
2015	1.475	19.221	3.909
2016	1.608	20.186	1.782
2017	1.416	17.533	1.899
<b>2018</b>	<b>1.475</b>	<b>17.266</b>	<b>1.569</b>




Umeen liburutegia	Euskara	Gaztelania	Besteak
2010	6.468	7.010	407
2011	6.164	7.125	400
2012	6.359	7.768	455
2013	6.583	7.544	477
2014	5.939	6.978	616
2015	5.808	6.530	513
2016	6.808	7.350	464
2017	7.362	6.873	483
<b>2018</b>	<b>8.224</b>	<b>7.312</b>	<b>479</b>




Umeen liburutegian mailegutzen denaren % 51,35 euskaraz da. Helduen liburutegian, aldiz, bakarrik % 7,26 da euskaraz mailegutzen dena. 2017 urteko datuekin konparatuta, igoera xumea egon da.

## Mailegua sexuaren eta adinaren arabera



	Emakumeak	Gizonak
2010	23.768	18.676
2011	24.126	17.818
2012	24.456	18.348
2013	23.411	17.567
2014	21.601	15.909
2015	22.116	15.418
2016	22.790	14.539
2017	21.281	14.327
<b>2018</b>	<b>22.532</b>	<b>14.017</b>



	Umeak <sup>5</sup>	Helduak
2010	9.041	33.403
2011	9.347	32.147
2012	10.385	35.292
2013	9.117	31.222
2014	8.505	28.316
2015	8.224	29.311
2016	9.706	27.931
2017	10.530	24.297
<b>2018</b>	<b>11.862</b>	<b>24.671</b>

14 urtetik beherakoei egindako mailegu kopurua totalaren % 31,34 da. Nabarmena da Umeen liburutegiaren erabilera.

## Erakundeei egindako mailegua

Guztira **1.313** mailegu egin zaizkie erakundeei, eta horietatik asko herriko ikastetxeei izan dira.

Ikasturte honetan ikastetxeekin dugun harremana sendotzea izan dugu helburu. 2018ko urte bukaeran bilerak egin genituen hainbat ikastetxetako zuzendaritza ekipoarekin. Bilera hauetan dossier bat banatu genuen eta bertan zeintzuk ziren gure jarduerak eta eskaini ahal genizkien zerbitzuak azaldu genituen. Orduz geroztik beraiek egiten zuten udal liburutegiaren erabilera handitu egin da.

<sup>5</sup> Helduak: 15 urtetik gora

Horietako zerbitzu bat **liburu-sortak maileguan eskaintzea** zen. Eta hauxe ondorioa: 2017an 316 mailegu egin genizkien ikastetxeei, eta **2018an bikoiztu baino gehiago** egin da eta 675 iristera ailegatu gara.

Oso balorazio ona jasotzen ari gara eta horrek animatzen gaitu horrela jarraitzera eta ildo estrategikoa izatera pasatu da elkarlan hau.

## eLiburutegia zerbitzua

2014ko urte bukaeran jarri zen martxan gure irakurleek askotan eskatu diguten zerbitzua: ebook-ak maileguan deskargatzeko zerbitzua, hain zuzen ere. Zerbitzu horren izena:

### eLiburutegia.

eLiburutegia plataforma bat da Interneten bidez eduki digitalen irakurketa errazten duena. Irakurketa hori streaming bidez, ordenagailuaren bitartez edo gailu mugikorren bidez egin daiteke. Zerbitzu horretara sartzeko helbide elektronikoa hau da:

[www.eliburutegia.euskadi.eus](http://www.eliburutegia.euskadi.eus).

Gure Liburutegiko bazkideek **953 liburu deskargatu** dituzte 2018an, 2017an baino 104 liburu gehiago. 2018an **466** eibartar konektatu dira eta **352k** zerbait hartu du maileguan. Deskarga gehien egin diren 10 udalen artean dago Eibar. Guztira **29.711 erabiltzaile** izan ditu eLiburutegia zerbitzuak eta **57.180 deskarga** egin dira, **2017an baino % 25,6 gehiago**.

UDALERRIA	Maileguak
Bilbao - Udal Liburutegiak	8.587
Donostia / San Sebastián	6.392
Vitoria-Gasteiz	5.987
Getxo	3.274
Barakaldo	1.534
Basauri	1.291
Durango	1.250
Zarautz	977
Irun	974
<b>Eibar</b>	<b>953</b>

Eta bukatzeko, gehien deskargatutako liburuak honako hauek dira:


## LIBROS MÁS PRESTADOS

	Titulo	Prestamos
1	<a href="#">Urtebete itsasargian</a>	27
2	<a href="#">Amaren eskuak</a>	19
3	<a href="#">La lengua de los secretos</a>	15
4	<a href="#">Nora ez dakizun hori</a>	14
5	<a href="#">Ahaztuen mendekua</a>	13
6	<a href="#">Ni, Vera</a>	13
7	<a href="#">Historia de un canalla</a>	13
8	<a href="#">Crimen en directo</a>	12
9	<a href="#">La herbolera</a>	12
10	<a href="#">Elkarrekin esnatzeko ordua</a>	11
11	<a href="#">Noruega 2</a>	11
12	<a href="#">El mensaje que llegó en una botella</a>	10
13	<a href="#">El bar de las grandes esperanzas</a>	10
14	<a href="#">A la sombra del templo</a>	9
15	<a href="#">Adivina quién soy</a>	9
16	<a href="#">Atomka</a>	9
17	<a href="#">A tus órdenes</a>	9
18	<a href="#">Musika airean</a>	9
19	<a href="#">Adelgaza para siempre</a>	9
20	<a href="#">Las tres bodas de Manolita</a>	9

## Automailegua

2018an **1.661 mailegutarako** erabili izan da makina, guztiaren % 4,05 eta 2017an baino 9 mailegu gehiago egin dira makinaren bitartez. Kontuan izan behar da makina erabiltzeko erabilgarri eduki behar dela karneta, hau da, erabiltzaileak ezin du izan zigorrik dokumentuak berandu bueltatzeagatik.

Makina behin erabili dutenek jarraitzen dute erabiltzen, eroso eta erraz erabiltzekoa delako, mostradoreko ilaran ez dutelako itxaron behar eta beraien irakurketen anonimatua lortzen dutelako. Hala eta guztiz ere, ikusten da erabiltzaileek **arreta pertsonala nahiago dutela**.



## Liburutegien arteko mailegua

**Liburutegien arteko maileguaren** datuak hauek dira: **3.821 liburu trukatu dira, 2017an baino 782 liburu gehiago.**

Beste liburutegi batzuei lagatako liburuak: **1.668** (1.663 sareko liburutegietara eta 5 Gasteizko Ignacio Aldecoa Liburutegira)

Eskatutako liburuak: **1.275** (1.272 sare barruko liburutegietara, 2 Ignacio Aldecoa Liburutegira eta 1 EHUko Liburutegira)

Klubei zerbitzatutako loteetako liburuak: **878 liburu 51 liburu-sortetan.**

Liburutegien arteko maileguen kopuru osoan gehituta daude zerbitzatzen ditugun Irakurketa klubetarako eskatutako liburu sortak.

Liburutegiak **10 irakurketa klubi** lortzen dizkie liburuak: Liburutegiko helduentzako biak (euskarazkoa eta gaztelarazkoa), Liburutegiko gazteentzako biak eta Eibarren martxan dauden klub hauei: Pagatxa, Biztu, Litertxoko, San Andres Egoitza, Egogain Zentro Gerontologikoa (URTMS) eta AGIFES. Horrek eragiten du liburutegien arteko maileguaren igoera, batez ere, eskatutako liburuena.

Zerbitzatutako sortak hauek dira:

Agifes (Irakurketa erraza): 12 sorta = 132 mailegu

Biztu: 10 sorta = 204 mailegu

Egogain (Irakurketa erraza): 5 sorta = 62 mailegu

Helduentzako gaztelerazko irakurketa kluba: 2 sorta = 40 mailegu

Litertxoko: 10 sorta = 205 mailegu

Pagatxa: 9 sorta = 205 mailegu

San Andres Egoitza (Irakurketa erraza): 3 sorta = 30 mailegu

Beraz, irakurketa klubei zerbitzatutako liburu sortek 878 mailegutik igotzen dituzte Liburutegien arteko maileguen kopuruak.




## Datu ekonomikoak

Kontu saila	Aurrekontua		Gastu erreala		Aldea		% erreala/aurreikusia	
	2017	<b>2018</b>	2017	<b>2018</b>	2017	<b>2018</b>	2017	<b>2018</b>
Makineria, instalazioak eta mantenimendua	3.750	4.150	3.512	<b>3.611</b>	238	<b>539</b>	93,65	<b>87,01</b>
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak	29.433	<b>29.707</b>	29.792	<b>30.606</b>	-359	<b>-899</b>	101,22	<b>103,03</b>
Bestelako hornidurak	8.900	<b>7.000</b>	7.091	<b>4.274</b>	1.809	<b>2.726</b>	79,67	<b>61,06</b>
Kanonak	1.087	--	1.316	--	-229	--	121,07	--
Protokolo eta ordezkaritza gastuak	500	<b>500</b>	272	<b>289</b>	228	<b>211</b>	54,40	<b>57,80</b>
Argitalpenak, publizitatea eta propaganda	400	<b>400</b>	186	<b>156</b>	214	<b>244</b>	46,50	<b>53,50</b>
Bilera eta hitzaldiak	1.500	<b>1.500</b>	1.673	<b>1.195</b>	-173	<b>305</b>	111,53	<b>79,66</b>
Kontratu soziokulturalak	10.570	<b>11.570</b>	9.807	<b>13.537</b>	763	<b>-1.967</b>	92,78	<b>117,00</b>
Pertsonalaren dietak, garraioa eta lekualdaketa	100	<b>100</b>	80	<b>221</b>	20	<b>-121</b>	80,00	<b>221,00</b>
Irabazi asmorik gabeko erakundeei	1.350	<b>1.350</b>	1.350	<b>1.350</b>	0	<b>0</b>	100,00	<b>100,00</b>
Liburutegiko ekihoak	8.586	<b>4.530</b>	7.846	<b>4.530</b>	740	<b>0</b>	91,38	<b>100,00</b>
<b>TOTAL</b>	66.176	<b>60.807</b>	62.925	<b>59.769</b>	3.251	<b>1.038</b>	88,00	<b>98,00</b>

## Jasotako dirulaguntzak

<b>Diru-sarrerak (Eusko Jaurlaritza)</b>	<b>2018</b>	<b>2017</b>	<b>2016</b>
Liburutegiko funtsak berritzeko	8.993,00	9.333,00	9.323,00
Haur eta gazte literatura sustatzeko programak	2.725,00	2.666,00	2.716,00
Teknologia berriak ezartzeko edo garatzeko	4.077,00	7.061,00	11.850,00
Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa "Maria Moliner lehiaketa"	1.706,66	1.706,66	Liburu sortak
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.501,66</b>	<b>20.766,66</b>	<b>23.889,00</b>





# Irakurketa bultzatzeko jarduerak

## Bularretik Mintzora egitasmoa



<p>Deskribapena</p>	<p>Hiru zutabetan oinarrituta, 0 eta 8 urte bitarteko umeen artean irakurketa sustatzea bilatzen duen egitasmoa. Hiru zutabe horiek Liburutegia, Eskola eta Familia dira.</p>
<p>Hartzaileak</p>	<p>0 eta 8 urte bitarteko umeak, irakasleak eta gurasoak.</p>
<p>Helburuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Umeentzako literatura bultzatzea (batez ere euskal literatura)</li> <li>• Liburutegia kalitatezko bibliografiarekin hornitzea.</li> <li>• Umeen literaturaren mailegua handitzea.</li> <li>• Irakurketarekin gozatzeko guneak ezartzea guraso, hezitzaile eta umeentzako.</li> <li>• Gurasoak eta hezitzaileak formatzea ahots gora irakurtzeko.</li> <li>• Lagunduta irakurtzeko gune lasaia lortzea umeentzako.</li> <li>• Lehenengo adinetan irakurtzearen garrantziaz familiak kontzientziatzea.</li> <li>• Liburutegia ezagutaraztea edozein arrazoiengatik oraindik ezagutzen ez zuten familiei.</li> </ul>

<p>Egutegia</p>	<p>Urtean zehar</p> <p><b>Bi saioko tailer 1</b> programatu da <b>gurasoentzako</b>:</p> <p><b>“Zer egin liburuekin: kontu kontari”</b></p> <p>Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako (1. eta 2. mailako) <b>irakasleentzako formazio saioak</b> programatu dira. Hitzaldi eta tailerren bidez, haur literatura sistematizatu nahi da, umeengan garapen kognitibo eta emozional osoagoa eta orekatuagoa lortzeko.</p> <p>2017/2018 ikasturtea: 12 saio eman dira.</p> <p>2018/2019 ikasturtea: 8 saio eman dira.</p>
<p>Baliabideak</p>	<p>Liburutegia bibliografiaren erosketaz eta Umeen liburutegian gune bat antolatzeaz arduratzen da, eta Euskara sailak irakasleen formakuntza eta egitasmoan sartzen diren eskoletako gurasoen formakuntza finantziatzen du. Ikastetxeen kolaborazioa garrantzitsua da, ikasleak Liburutegira etortzen direlako egitasmoaren liburuak maileguan hartzera.</p>
<p>Programaren arduraduna eta kolaboratzaileak</p>	<p>Liburutegia eta Euskara saila. Egitasmoan ikastetxeek eta familiek ere hartzen dute parte.</p>
<p>Gastua</p>	<p><b>3.950,00 €</b></p>
<p>Balorazioa eta estatistikak</p>	<p><b>Bularretik Mintzora</b> egitasmoak Liburutegiaren erabilera handitzea lortu du.</p> <p>Konprobatu dugu Liburutegira jende gehiago etortzen dela, eta <b>Umeen liburutegian</b>, guztira, 16.311 dokumentu mailegatu dira, eta horietatik <b>12.600 (% 77) aldizkari eta liburuak dira</b>. Liburuaren maileguaren igoera (<b>1.515 liburu gehiago 2018an</b>) Bularretik Mintzora egitasmoari esker gertatu da.</p>

## Li (buru-hausgarriak)



<p>Deskribapena</p>	<p>Irakurketa sustatzeko asmoarekin egindako jolasa da. Ingurunearen ezagutza ere bultzatzen da egiten diren galderekin. 6 urte baino gehiago duten umeei zuzenduta dago.</p> <p>Liburuak irakurri behar dituzte eta bueltatzean Eibarri buruzko galderak egiten zaizkie.</p>
<p>Helburuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakurketa sartzea umeen eta gazteen jarduera ludikoetan</li> <li>• Euskaraz egindako irakurketa bultzatzea</li> <li>• Eibarri buruz daukaten ezagutza sendotzea</li> <li>• Eibarko Liburutegiko bertako funtsaren erabilera sustatzea eta zabaltzea</li> <li>• Erabiltzaileei Liburutegiko errekurtsu informatiboak erabiltzen irakastea</li> <li>• Familiak inplikatzeko umeen aisialdian eta beraien jarduera kulturaletan parte hartzerako gonbidatzea</li> </ul>
<p>Noiz</p>	<p>Egunero, apiriletik ekainera. Sariak ekainean banatzen dira.</p>

Baliabideak	Liburutegiko pertsonala, galderen fitxak, plantillak, barraketarako gonbidapenak eta jokoak amaitu duten partaide guztientzako diploma bat eta lehiaketaren logoa duen motxila bat.
Programaren arduraduna	Umeen liburutegiko pertsonala. Informazioa ikastetxeetan banatzen da.
Aurrekontua	Fotokopiak, txartelak, barrakak. Gastua: <b>288,59 €</b>
Ebaluaketa	Lehenengo urteetako edizioekin konparaketa egiten badugu, partaidetza handitu da eta familiek benetan disfrutatzen dute joko honekin. Egiten dugun balorazioa oso positiboa da.  Lehiaketa dela eta, aurten <b>444 liburu</b> irakurri dira apiriletik, <b>% 85 euskaraz</b> , eta <b>114</b> buru-hausgarri osatu dira. <b>5</b> partaidek 5 buru-hausgarriak asmatzea lortu dute. Guztira, <b>49 umek</b> lortu dute saria.

## Liburua, kulturarako sarbidea

Deskribapena	Ekimen honen bidez, Udalak nahiz herriko hainbat taldek antolatzen dituzten jarduera kulturaletarako sarrerak zozketatzen dira irakurleen artean.  Irakurleak, maileguan liburu bat hartzen duen bakoitzean, papertxo bat jasotzen du; liburua bueltatzen duenean papertxo hori bere datuekin beteta ekarriko du, eta horrela hainbat ikuskizunetara joateko aukera izango du.
Helburuak	Aisialdiaz gozatzeko, liburua aukeratzen duten erabiltzaileak "saritzea"
Noiz	Urte osoan zehar.
Baliabideak	Liburutegiko pertsonala eta Kultura Sailak ematen dituen ikuskizunetarako sarrerak
Aurrekontua	Sarreraren kostua. Aurten banatutakoak:  Ikuskizunak: 45

	Antzerkia	27
	Musika	10
	Magia Showak	5
	Dantza	2
	Literario-musikala	1
	Helduentzako: 36	
	Umeentzako: 9	
	Guztira: <b>230 saritu</b> (73 emakume eta 41 gizon)	
Ebaluaketa	Erabiltzaileek esker onez hartzen dituzte sarrerak beti. Urte bukaeran zera neurtzen dugu:	
	Emandako sarreretatik zenbat erabili diren	
	Zenbat ikuskizunetarako eman diren sarrerak	

## Zapatuko ipuina



Deskribapena	Urtean zehar hilaren azken zapatuan ipuin emanaldi bat egiten da.
Helburuak	Irakurketa sustatzea ahozko literatura erabiliz

	Asteburuan aisialdirako aukerak zabaltzea
Noiz	Urtarriletik apirilera eta urrian eta azaroan (hilean behin)
Baliabideak	Liburutegiko pertsonala. Kartelak, etab.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	<b>2.137,30 €</b>
Ebaluaketa	Jarraipena egiten da honako hau kontuan hartuta: saiora etorritako ume kopurua, egun horretako eguraldia, saioa nola egon den (kontalariaren kalitatea, ea umeak erakarri dituen, etab.)  <b>328 umek</b> hartu zuten parte ekintza hauetan

## “Liburu artean” liburutegi tailerra



Deskribapena	Liburutegi tailerra LHko 6. mailako umeei zuzenduta dago. Nahi duten Eibarko ikastetxe guztiek parte hartu ahal dute gelaka, irakasleak lagunduta.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udal Liburutegiaren funtzionamendua ezagutzeta: arauak, nola aurkitu eta eskatu materialak, mailegu zerbitzua, funtsen</li> </ul>

	<p>antolamendua apaletan, nola eskuratu Liburutegiko karneta, etab.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Umeek Liburutegia era ludikoan ezagutu dezaten eta bertan eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzen ohitzea</li> </ul>
Noiz	Urria-azaroa
Baliabideak	Ordenagailuak (OPAC), eta egiten den jolas baten materiala: fitxak, etab.
Programaren arduraduna	Liburutegiko pertsonalak gidatzen ditu tailerrak. Liburutegitik egutegia proposatzen zaio ikastetxeei eta haiekin adosten da.
Aurrekontua	0,00 €
Ebaluaketa	<p>Herriko ikastetxeetako irakasleek ondo baloratzen du jarduera hau.</p> <p>Eibarren Lehen Hezkuntzan dauden 7 ikastetxeetatik normalean denek hartzen dute parte. 2018an <b>13 talde etorri dira, guztira 302 ume.</b></p>

## “Itsaspeko bihotzak” areto literarioa



<p>Deskribapena</p>	<p>Areto literario honetan, genero berdintasunaren gaia lantzen da euskarazko haur literaturaren bitartez. Hezkidetzaren ardatz duen ibilbide artistiko-pedagogiko bat diseinatu du Galtzagorri elkarteak horretarako. Ikastetxeekin lotu ziren bisitak, LHko 4. mailakoei zuzenduta.</p>
<p>Hartzaileak</p>	<p>Pentsatuta dago LHko 4. Mailako ikasleek bisita gidatuak hartzeko. Beraz, bisita horiek ikastetxeekin lotzen dira.</p> <p>Baina erakusketa zabalik egon da Erakusketa aretoaren ordutegian, pertsona helduek eta familiek liburuak eta erakusketaren elementuak ikus ditzaten, horren inguruan hausnarketa egiteko.</p>
<p>Helburuak</p>	<p>Erakusketaren <b>helburu espezifikoak</b> honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Literatura hezkidetzaillea ezagutaraztea ume zein helduei.</li> <li>• Arte eta estetika kontzeptuetan hezi, begirada artistikoa landuz.</li> <li>• Praktika pedagogiko hezkidetzaillea aurrera eramatea.</li> <li>• Imajinario kolektiboan sexu eta genero estereotipoak gainditzeko aukera ematea.</li> </ul>
<p>Noiz</p>	<p>Martxoaren 7tik 15era.</p>
<p>Baliabideak</p>	<p>Erakusketa aretoan egin zen, eta Galtzagorri elkartearen erakusketa eta dinamizazioa kontratatu ziren.</p>
<p>Programaren arduraduna</p>	<p>Liburutegia, Berdintasun sailarekin elkarlanean</p>
<p>Gastua</p>	<p><b>1.342,00 €</b></p>
<p>Ebaluaketa</p>	<p>Guztira <b>213 umek</b> hartu dute parte, 6 ikastetxetako 10 taldetan banatuta. Familientzako saiora <b>20</b> pertsona etorri ziren. eta martxoan familiekin ere egin zen saio bat. Ikastetxeen balorazioa oso positiboa izan da. Beraien ustez, ekintza aproposa izan da adin honetako ikasleentzat, modu dibertigarrian genero berdintasuna eta irakurketa lantzen direlako.</p>



## Umeen irakurketa klubak

### Azalerako ipuinak



Deskribapena	<p>Klub honen asmoa gurasoek eta haurrek irakurketa partekatzeko une bat izatea da.</p> <p>Urtebeteko umeei eta Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko umeei zuzenduta dago, amak edo aitak lagunduta.</p>
Helburuak	<p>Entzumena, kontaktua, ikusmena, usaimena eta dastamena literaturara ate ireki bat izan daitezela da helburua. Abestiak, ipuin laburrak, hitz jokoak, poemak... berreskuratuko dira eta azalerako ipuinetan erabiliko dira, liburuak eskaintzen dituzten baliabideak ezagutzuz.</p>
Noiz	<p>Urritik maiatzera, hilean behin</p>
Baliabideak	<p>Saioetan lantzen diren liburuak erosi egiten dira, Liburutegiak ez baditu.</p>
Programaren arduraduna	<p>Liburutegiko arduraduna eta Maider Pagei. Saioen dinamizatzaila, Saroa Bikandi</p>

<b>Gastua</b>	Guztira, <b>1.597,20 €</b> . Urritik aurrera beste talde bat sortu dugu, pertsona asko erreserban gelditu zirelako.
<b>Ebaluaketa</b>	<p>Ikastaroa amaitzean inkesta bat pasatu zaie partaideei asebetetze maila neurtzeko.</p> <p>Jasotako balorazioa oso positiboa da. Etortzen diren gurasoek ipuinak kontatzeko beste era bat ikasi dutela esan dute, eta adi egongo direla hemendik aurrera literatura ona bereizteko. Ez da berdina umeentzako liburu bat eta haur literaturako liburu on bat.</p> <p>Esaten dute beraien seme-alabek asko disfrutatzen dutela jarduerarekin eta orain hobeto baloratzen dutela etxean irakurtzeari eskaintzen dioten denbora.</p>

## Liburuen poltsa



<b>Deskribapena</b>	<p>Klub honen asmoa gurasoek eta haurrek irakurketa partekatzeko une bat izatea da.</p> <p>Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko umeentzat eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoko umeentzat, amak edo aitak lagunduta.</p>
---------------------	---

Helburuak	Irakurketa kluba suspertzea, irakurzaletasuna eta liburuekiko atxikimendua sortzeko ahaleginak eginez, jolasen eta dinamiken bitartez, umeen nahiak, interesak eta fantasia pertsonalak abiaburutzat hartuta.
Noiz	Urritik maiatzera, hilean behin
Baliabideak	Saioetan lantzen diren liburuak erosi egiten dira, Liburutegiak ez baditu.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna eta Mainer Pagei. Saioen dinamizatzaileria, Saroa Bikandi
Aurrekontua	Guztira, <b>3.194,40 €</b> . Urritik aurrera beste bi talde sortu ditugu, pertsona asko erreserban gelditu zirelako.
Ebaluaketa	Ikastaroa amaitzean inkesta bat pasatu zaie partaideei.  Jarduerari buruzko oso erantzun positiboak jaso ditugu balorazioan. Gurasoek kalitatezko haur literatura baloratzen, beraien seme-alabekin irakurketa konpartitzeko momentuak bilatzen ikasten dute; horrela irakurketa sustatzen dutela pentsatzen dute, gainera beraien seme-alaben aldetik interes handiagoa nabaritzen dute irakurketari dedikatzen dioten denboran.

## Paperezko hegoak



<p>Deskribapena</p>	<p>Agerikoa da literaturak eta letren munduak aberastu egiten dutela haur eta gazteen garapena. "Paperezko hegoak" izeneko irakurketa klubak tailer bilakatzen ditugu, eta saio bakoitzean irakurritakoa taldeko solasaldi baten bidez lantzeaz gain, sorkuntza ariketa bat gehitzen diogu.</p> <p>Bi talde sortu dira.</p>
<p>Helburuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haur eta gazteen garapena aberastea literaturaren bidez</li> <li>• Partaideek sortzeari beldurra galtzea</li> <li>• Gozamen osoagoa bereganatzea.</li> </ul>
<p>Noiz</p>	<p>Urritik maiatzera, hilean behin.</p>
<p>Baliabideak</p>	<p>Saioetan lantzen diren liburuak erosi egiten dira, Liburutegiak ez baditu. Partaide bakoitzari liburua ekartzen zaio Liburutegien arteko mailegu zerbitzua erabilita.</p>
<p>Programaren arduraduna</p>	<p>Liburutegiko arduraduna eta Elixabete Cid. Saioen dinamizatzailea Txomin Magdalena da.</p>
<p>Aurrekontua</p>	<p>Guztira, <b>2.720,00 €</b>.</p>
<p>Ebaluaketa</p>	<p>Ikastaroa amaitu zenean inkesta pasatu zitzaizen partaideei. Bi talde eduki ditugu eta asebetetze maila 8koa izan da 10 puntutik.</p>

## Haur eta Gazte liburuaren nazioarteko eguna



Deskribapena	Aurten liburu bat egiteko tailer bat burutu dugu eta "H.C. Andersenren ipuin bat komikian" lehiaketan parte hartu dugu.
Hartzaileak	<p>Liburu-akordeoi tailerra: 6 urtetik gorako umeentzat.</p> <p>"H.C. Andersenren ipuin bat komikian" lehiaketa. Hiru kategoria:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen irakurleak (LHko 1., 2. eta 3. maila)</li> <li>• Irakurle aurreratuak (LHko 4., 5. eta 6. maila)</li> <li>• Megairakurleak (DBHko 1. eta 2. mailak)</li> </ul>
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegia ezagutaraztea eta jarduera bat eskaintzea oportretan.</li> <li>• Haur eta gazteentzako liburu onak sustatzea eta gazteenen artean irakurketa bultzatzea.</li> </ul>
Noiz	Apirila
Baliabideak	<p>Tailererako dinamizatzailea kontratatu.</p> <p>Lehiaketako eibartar irabazleentzako opariak.</p>

Programaren arduraduna	Umeen Liburutegiko arduraduna.
Gastua	<p>Tailerra: <b>211,80 €</b></p> <p>Lehiaketaren irabazleentzako opariak (komikiak): <b>53,99 €</b></p>
Ebaluaketa	<p>Balorazio positiboa, aurreikusitakoa baino partaidetza handiagoa izan delako. Gainera, <b>Galtzagorria aurkeztutako komiki batek Euskadi mailan lehenengo irakurleen arteko kategorian saria lortu du. Umeak diploma eta liburu-sorta bat jaso du eta Liburutegiak beste bat.</b></p>

## Umeentzako jolasak Haur liburutegian



Deskribapena	Gabonetarako joko bat prestatu genuen umeen liburutegirako, irakurketa sustatzeko asmoarekin
Helburuak	Irakurketa sustatzea Liburuak era ludikoan erabiltzea Liburuak oparitzea sustatzea
Noiz	Abendua
Baliabideak	Papera, plastilina, etab. Antzerki emanaldietarako sarrerak
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna eta Maider Pagei
Gastua	142 € materialetan
Ebaluaketa	Liburutegia dinamizatzekeo jarduera egokia. Umeak lan eta lan ibili ziren, batez ere beraien gustuko liburuak zeintzuk ziren plastilina erabiltza adierazteko.  98 umek hartu zuten parte eta 16k sariren bat lortu zuten.

## Helduen irakurketa kluba

Deskribapena	Aldez aurretik aukeratutako liburuez jarduteko saioak hilero. Saioak aditu batek koordinatu eta dinamizatzen ditu, eta parte-hartzaileei liburuak irakurtzeko aholku eta jarraibideak ematen dizkie.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Literaturan interesaturik dauden pertsonen harremana sustatzea</li> <li>• Aukeratutako liburuei buruzko iruzkinak egitea sustatzea</li> <li>• Norbanakoaren lana iruzkin, balorazio eta abarren bidez aberasteko aukera ematea irakurleei, balorazio horiek bakoitzarenak, dinamizatzailearenak nahiz klubeko gainerako kideenak izan daitezkeelarik.</li> <li>• Irakurketa sakona egitea dinamizatzaile eta klubaren gainerako kideen laguntzaz, askotan ez baikara konturatzen interesgarriak izan daitezkeen hainbat xehetasunez.</li> </ul>

Noiz	8 saio egiten dira urtean zehar, hilean behin.
Baliabideak	Partaideei saio bakoitzean aukeratutako liburua ekartzen zaie beste Liburutegietatik LAM (Liburutegien arteko mailegua) bidez.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna eta Elixabete Cid. Dinamizatzailea: Peru Magdalena Arriaga
Aurrekontua	<b>1.760,00 €.</b>
Ebaluaketa	Ikastaroa amaitu eta gero inkesta bat pasatzen zaie partaideei eta dinamizatzaileari. Galderak ikastaroari, dinamizatzaileari, azpiegiturari eta plangintzari buruzkoak izan dira.
Oharrak	Gure klubetik aparte, liburuez hornitzen ditugu beste 6 irakurketa klub. Hain zuzen ere, <b>Pagatxa</b> eta <b>Biztu</b> Elkartekoek eta <b>Litertxokok</b> antolatzen dituztenak. Irakurketa errazeko hiru talderi ere ekartzen dizkiegu liburuak: “ <b>Egogain</b> ” Zentro Gerontologiko Esku-hartze Psikosozialeko taldeari eta <b>San Andres</b> Egoitzakoari eta <b>AGIFESi</b> .

Euskarazko irakurketa kluba: Idazlearekin harixa emoten





## Deskribapena

Aurretik aukeratutako liburuak komentatzeko hileko bilerak. Liburuaren egilea bertan dela egiten dira bilera hauek, eta hark bere ibilbideaz eta nobelan erabilitako prozesu literarioaz hitz egiten du, partaideen galderei ere erantzunez.

## Helburuak

- Euskarazko irakurketa sustatzea
- Literaturan interesatuta daudenak elkartzea
- Aukeratutako liburuen gaineko iruzkinen elkar trukatzeari sustatzea
- Norbanakoaren lana iruzkin, balorazio eta abarren bidez aberasteko aukera ematea irakurleei, balorazio horiek bakoitzarenak, idazlearenak nahiz klubeko gainerako kideenak izan daitezkeelarik.
- Obra baten irakurketan sakontzea

Garatu diren jarduera espezifikoak	7 idazle pasatu ziren Liburutegitik: : Jose Inazio Basterretxea, Juanjo Olasagarre, Uxue Alberdi, Koro Navarro (itzultzailea), Karlos Linazasoro, Garazi Arrula Ruíz eta Gotzon Hermosilla.
Noiz	8 saio egiten dira urtean zehar, hilean behin urritik maiatzera
Baliabideak	Partaide bakoitzari saio bakoitzean aukeratutako liburua ekartzen zaio LAM bidez.  ...eta kitto! Elkartearekin batera egiten dugu ekimen hau.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Dinamizatzaila: Antxon Narbaiza. Honek liburu bakoitzaren iruzkina egiten du eta taldeko partaideei bidaltzen zaie saioaren aurretik posta elektronikoz.
Gastua	<b>1.120,00 €.</b> Maiatzeko saioa EIZIEk diruz lagundu du.
Ebaluaketa	Ikastaroa amaitzean inkesta pasatu zaie partaideei. Balorazioa oso positiboa da.

## Liburuaren nazioarteko eguna



Deskribapena	Liburuaren nazioarteko eguna ospatzeko helduentzako ipuin kontalari saio musikatua antolatu dugu.
Hartzaileak	Irekia
Helburuak	Liburuaren eguna ospatzea eta ez ohiko ekintzak eskaintzea helduentzat.
Noiz	Apirila
Baliabideak	Emakume Eskeletoak taldearen kontratazioa
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Gastua	Saioa: <b>574,75 €</b>
Ebaluaketa	Balorazioa positiboa, pentsatu genuena baino jende gehiago etorri zen. Bertaratu zirenek bere gustukoa izan zela adierazi ziguten.

## Bibliografia fondoaren erakusketa interesguneetan



Deskribapena	Urtean zehar gure bibliografia fondoaren erakusketak antolatzen ditugu, Portalea kultur etxearen beste jarduera batzuekin bat datozenak, efemerideak edo beste ekitaldi batzuk kontuan hartuta.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Liburutegiko funtsaren zabalkundea egitea</li> <li>• Nobedadeak ez diren materialei irteera ematea</li> <li>• Euskarazko irakurketa bultzatzea</li> </ul>
Noiz	Urtean zehar.
Baliabideak	Kartelak, erakustegiak eta Liburutegiko funtsa. Batzuetan gidak egiten ditugu, paperean eta digitalean, eta gure webgunea erabilia zabaltzen ditugu: <a href="https://www.eibar.eus/eu/kultura/ism-liburutegia/argitalpenak/irakur-gidak?set_language=eu">https://www.eibar.eus/eu/kultura/ism-liburutegia/argitalpenak/irakur-gidak?set_language=eu</a>
Programaren arduraduna	Liburutegiko pertsonala
Aurrekontua	0,00 €
Ebaluaketa	Beti nabarmentzen da interesguneetan jartzen den materiala maileguan eramaten dela.

## Hitzaldiak eta liburu aurkezpenak



### Deskribapena

Idazleak eta haien obrak ezagutzera emateko jarduera da. Aurten aurkezpen hauek izan ditugu:

Martxoa: José María del Palacio Alonsoren "Secuelas de nuestras guerras y derrotas" liburua aurkeztu zen.

Maiatza: Silvia Zuluagaren "¡A dieta! En la vida real" nobelaren aurkezpena.

Azaroa: Nerea Barjolak idatzitako "Microfísica sexista del poder : el caso Alcàsser y la reconstrucción del terror sexual" aurkeztu zen.

Azaroa: "La poesía en su expresión de rebeldía y conciencia personal y social" hitzaldi-errezitaldia antolatu genuen, León Felipe taldearen eskutik.

Abendua: Ángel Mario Fernándezen "Che, aitona! Las palabras enterradas" liburuaren aurkezpena.

### Hartzaileak

Irekia.

Helburuak	Idazleak irakurleei hurbiltzea. Kultura zabalkundea
Noiz	Urtean zehar
Baliabideak	Kartelak
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	75 €
Ebaluaketa	Ez da jende larregi hurbiltzen, ez bada Eibarri lotutako edo idazle eibartarrak aurkeztutako zerbait. 2018an 122 pertsonak hartu dute parte.

## Erabiltzaileen formakuntzarako tailerrak



Deskribapena	Formazio tailerrak antolatzea honi buruz informatzeko: katalogoan nola bilatu, web gunea eta bloga nola erabili, sarbidea nobedade bibliografikoetara, Interneteko gune tematikoak (Enplegua, Autodidakta eta Hizkuntzak), eLiburutegia, liburu digitalak deskargatzeko zerbitzua...
Hartzaileak	Helduak, emakumeen elkarteak, jubilatuek, ikastetxeak eta, orokorrean, informazio nola bilatzen den ikasteko interesa duen edonor.

Helburuak	Informazio-alfabetatzea
Egutegia	Udatik aurrera
Baliabideak	Kartelak
Programaren arduraduna	Liburutegiko pertsonala
Gastua	<b>0,00 €</b>
Balorazioa	Irakasleek eskatutako 7 tailer burutu ditugu. <b>164 ume eta gazte</b> pasatu dira hemendik.

## Prestakuntza ikastaroak

PRESTAKUNTZA EKINTZA Actividad formativa	LANGILE KOP. Nº trabajadores/as	ORDU KOP. Nº horas	HORNITZAILEA Proveedor	TOKIA Lugar
<i>“Irakurketa plana ikastetxean. Irakurri ikasteko, irakurri gozatzeko”</i>	LIBURUTEGIA (1) .Kultura lagun. Maidar Paguey Esnaola	14,15 uztailak 2, 3 eta 4	UDAKO IKASTAROEN FUNDAZIOA (UPV/EHU)	DONOSTIA
<i>“Detectando información falsa sobre salud en internet”</i>	LIBURUTEGIA (1) .Kultura lagun. Yolanda Isla Gómez	2 urriak 10	ALDEE	BILBO
<i>“La biblioteca al encuentro de los lectores”</i>	LIBURUTEGIA (1) .Kultura lagun. Elixabete Cid Vázquez	8 urriak 30 eta 31	EUSKO JAURLARITZA	GASTEIZ
<i>“Comunicación visual para bibliotecarios”</i>	LIBURUTEGIA (1) .Kultura lagun. Yolanda Isla Gómez	50 urriaren 30etik azaroaren 26ra	CAMPUS EUROPEO DE FORMACIÓN PERMANENTE	ONLINE
<i>“IX Congreso Nacional de Bibliotecas Públicas”</i>	LIBURUTEGIA (1) .Arduraduna Eva Alberdi Zubiaurre	24,15 azaroak 28,29 eta 30	PRESENCIA BY MA, S.L.	LOGROÑO



<i>“Reglamento General de Protección de Datos (RGPD)”</i>	Eva Alberdi Eva Cortijo	Oinarrizkoa: 3 ordu  Martxoak 6 Martxoak 7	Global Factory, S.L	EIBAR
<i>“Zerbitzuen kartak (tutorizazioa)”</i>	Eva Alberdi	10  5 saio maiatzetik uztaiera	MASDOSA	EIBAR
<i>“Eibarko Udaleko sare sozialak. Twitter”</i>	.Eva Alberdi .Eva Cortijo .Yolanda Isla Gómez .Maider Paguey	2  Maiatzak 17	KOMUNIKAZIO TEKNIKARIA (barne formazioa)	EIBAR
<i>“Eibarko Udaleko sare sozialak. Facebook”</i>	.Eva Alberdi .Yolanda Isla Gómez .Maider Paguey	2  Maiatzak 15	KOMUNIKAZIO TEKNIKARIA (barne formazioa)	EIBAR
<i>“Administrazio elektronikoa eta espedienteen gestorea”</i>	.Eva Alberdi .Eva Cortijo .Yolanda Isla Gómez .Maider Paguey	4,5 (saio teorikoak + praktikoak)	INFORMATIKA SAILA ETA ANTOLAKETA, ENPRESA AHOLKULARIAREN LAGUNTZAZ (barne formazioa)	EIBAR
<i>“Kontratu txikietan izandako lege aldaketak eta horiek bidaratzeko aplikazioa”</i>	Eva Alberdi	4 ordu  Maiatzak 21 (eta ekainean saio praktikoa)	INFORMATIKA SAILA, ANTOLAKETA eta KONTRATAZIOA (barne formazioa)	EIBAR

## Proiektuak

### Andretxeko liburutegia



2019ko urte hasieran Andretxeko (Eibarko emakumeen etxea) funtsa bibliografikoa katalogatzen eta sailkatzen hasiko gara.


Andretxeko funtsa bibliografikoak ikertzaileen eta interesatua dagoen edonoren funtsa dokumentala izatea du helburua. Beraien liburutegia genero gaitan, berdintasunean eta feminismoan espezializatuta dago. 500 aleko funtsa dute, oso interesgarria genero ikuspegitik aukeratuta izan delako.

Proiektu honekin helburu hauek bete nahi ditugu:

- Funtsa bibliografikoaren kudeaketa egokia.

- Herritarren eskura jartzea
- Funtsaren ikusgarritasuna bultzatzea Euskadiko Irakurketa Publikoko sareko katalogoan jarriko delako.
- Andretxeko liburutegiaren eta Juan San Martin udal Liburutegiaren harreman iraunkorra ezartzea.

## Ondare-funtsa katalogatu



GOBIERNO DE ESPAÑA  
MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE

Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico Español








Inicio | Proyecto | Bibliotecas | Direcciones | Ayuda | Contacte

Buscar | Marcados

Resultados

Buscando: Cualquier campo: ?/ Ejemplares de Éibar

Registros 1/10 de 2417

<input type="checkbox"/>		<b>La Seo y el Pilar de Zaragoza / por F. Abbad Ríos. (1901)</b> Madrid : Editorial Plus-Ultra, [s.a.] (Aldus) CCPB001031977-8
<input type="checkbox"/>		<b>José Calvo Sotelo : (la verdad de una muerte) / Felipe Acedo Colunga. (1957)</b> Barcelona : AHR, 1957 (Composición Saturno) CCPB001019727-3
<input type="checkbox"/>		<b>Faune de France : contenant la description de toutes les espèces indigènes ... / A. Aclouque ; avec une préface par Edmond Perrier. (1896)</b> Paris : Librairie J.-B. Baillière et Fils, 1896- CCPB001194386-6
<input type="checkbox"/>		<b>La corrida de toros / José Luis Acquaroni. (1957)</b> Barcelona : Noguer, 1957. CCPB001293114-4
<input type="checkbox"/>		<b>Cristo nuestro hermano / Karl Adam ; [versión española por Antonio Sancho]. (1958)</b> Barcelona : Herder, 1958. CCPB001292185-8
<input type="checkbox"/>		<b>Geología agrícola : provincia de Guipúzcoa : primera parte : bosquejo petrográfico / por... Ramón Adán de Yarza. (1900)</b> San Sebastián : [s.n.], 1900 (Imprenta de la Provincia) CCPB000359010-0
<input type="checkbox"/>		<b>Ritual de la Adoración Nocturna Española : parte segunda del reglamento / compuesto por su Consejo Supremo según los acuerdos de las Asambleas Nacionales. (1957)</b> Madrid : [s.n.], 1957. CCPB000915885-5

Ondare-funtsaren<sup>6</sup> katalogazioarekin jarraitzen ari gara, eta 2018ko abenduan **1.488 liburu** zeuden katalogatuta eta **Erreserba Funtsa** honetan kokatuta.

<sup>6</sup> Ondare-funtsa 1958 baino lehen editatutako tituluak batzen ditu.

Funtsa hori ***Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico Español***-en sartuta dago. Bertan 2.417 erregistro daude, beraz, 929 gelditzen zaizkigu oraindik gure katalogoan sartzeko: katalogatu, gaiak ele bietan jarri, autoritateak sortu... Pixkanaka egiten ari gara.

## Zerbitzuen karta

Espero dugu 2019an argitaratzea Liburutegiko zerbitzuen karta. Lana ia amaituta dago, onartua izateko zain.

## Ikastetxeekin harreman estuagoa bilatu

Ikasturte hasieran bilera batzuk egin ditugu herriko ikastetxe batzuekin, gure zerbitzua zein den eta zer den guk eskaini ahal dieguna udal liburutegia moduan azaldu ahal izateko.

Bilera horien ondorioz, liburu-sorten eskaerak handitu egin dira eta baita eskola ordutegian egindako bisitak .